



unesco etxea
txostena



2 **Aurkibidea**3 **Agurrak**4 **Nor gara?**8 **2006ko ekintzak**11 **Web orria eta argitalpenak**12 **2006ko gertaera nabarmenak**14 **Datu ekonomikoak**16 **Eskerrak**

Erredakzio eta grafikoak: UNESCO Etxeko lantaldea
 Diseinua eta maketazioa: SRB, S.L.
 Edizioa: 2006ko ekaina
 Editatzen du: UNESCO Etxeak

UNESCO Etxea
 Alda. Urquijo 60, pral. dcha. 48011 Bilbao
 Tlf.: 94 427 64 32 Fax: 94 427 25 48
 info@unescoeh.org
 www.unescoeh.org

Paper honek 'Basoen Lagunen Liburua' egitasmoan parte hartzeko ingurumen- eta giza ezaugarriak betetzen ditu. Egitasmo horrek basoen kontserbazio eta erabilera iraunkorra sustatzea du xede, batez ere, baso primarioak, planetako azken ukitu gabeak.



Berotegi efektudun gas isurketari loturiko argitalpen honen paperaren kontsumoa eta banaketa konpentsatu dira CeroCo2 ekimenak bideratzen dituen isurketa-murrizte proiektuen bitartez. Horrela, argitalpen honek aldaketa klimatikoaren aldaketaren prebentzioan parte hartzen du.



RUPER ORMAZA PRESIDENTEAREN AGURRA



2006. urteko ekitaldian, gure elkarteak sendotzea eta hobetzea lortu du. Barne-administrazioari dagokionez, Onura Publikoko Deklarazioa lortu dugu, gure kontuen kanpo-ikuskaritza sendotu dugu, urte anitzeko hitzarmenak areagotu ditugu, eta, azkenik, emaitza ekonomikoak hobetu ditugu. Aurrerago, ikuskatutako kontuei buruzko txostena aurkeztuko dugu, gure elkartearen ekonomia eta finantzak zer-nola dabilzan erakusten baitute, zehatz-mehatz.

Urtean zehar egindako jarduera ugarien artean, hauek nabarmenduko ditugu:

- Zenbait foro eta saretan parte hartu dugu, hala tokikoetan nola nazioartekoetan. Horietan, Nazioarteko Erakundearen erreforma eta, bereziki, Nazio Batuen Erakundearen erreforma landu dira.
- Aurreko Batzordearen eta Nazio Batuen Giza Eskubideen Kontseilu berriaren bileretan parte hartu dugu, eta, bereziki, Bakerako Giza Eskubidea sustatzeko lanean lagundu dugu, nabarmen lagundu ere, Deklarazio Proiektuaren bidez. Proiektu hori diplomazia-bidea egiten ari da orain.
- Munduko hizkuntzei buruzko txostena zabaldu dugu. Horretarako, zenbait hizkuntzatan argitaratu da: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta errusieraz.

- Lankidetzan aktiboki jardun dugu, gure herrialdeak, bertako gobernuaren eta gizarte-erakundearen bidez, Nazioarteko Urari buruzko Hamarkadan parte har dezan, eta, zehazkiago, Urari buruzko Munduko IV. Foroan, eta, protagonismoa eta parte-hartze nabarmena izan dezan ere lan egin dugu.
- Hainbat jarduera egin ditugu, irakasleak Kultura arteko Hezkuntzari buruz kontzientziatzeko eta arlo horretarako prestatzeko. Horretarako, hainbat gizarte-eta hezkuntza-erakunderekin aritu gara lanean.
- Gure web-orria eguneratu eta hobetu dugu. Bisita-kontrolaren arabera, 296.563 bisitari izan ditugu 2006an.
- Ahalegin handia egin dugu komunikazioaren eta argitalpenen alorrean: Nazio Batuen materialei buruzko hiru liburu didaktiko atera dira, eta 8 artikulua espezializatu argitaratu dira aldizkarietan eta beste komunikabide batzuetan.

Oso harro gaude, 2006. urtean jarduera ugari egin ditugulako eta emaitza handiak lortu ditugulako gure eginbeharrarekin eta ikuspegiarekin bat; urte garrantzitsua izan delako gure elkartea sendotzeko. Horrek adierazten digu asko hazten ari garela, eta, beraz, euskarri dugun oinarria ere, gizarte-oinarria, sendotu egin beharko dugu, bai eta gizarte horren parte-hartzea aktiboa ere.

MIKEL MANCISIDOR ZUZENDARIAREN GUTUNA



UNESCO Etxearen lan-talde osoaren izenean, Jarduera Memoria honi begiradatxo bat ematera animatu nahi zaitut. Izan ere, begiratu arin eta azkar batez gure erakundearen ikuspegi orokorra izan dezazun nahi dugu, eta gure eginberrak betetzeko egiten ari garen lan guztiarena. Programei eta jardueri buruz informazio zehatzagoa nahi izanez gero, gure web-orrian begira dezakezu, etengabe eguneratzen ari gara-eta.

2006 urtean hasi ginen gure 2006-2008 Plan Estrategikoa garatzen, eta oso pozik gaude, helburuak erritmo onean ari baikara betetzen. Gainera, jardunbide horretan asko ari gara ikasten: nola egin behar den lan, gure eginbeharrarekin bat datozen helburuak lortzeko; nola jardun behar den, lana

eraginkorra izan dadin; eta nola egiten den lan, adierazleak erabiliz.

Lantzen ditugun programak gero eta helburu handiagokoak dira, eta gero eta maila handiagokoak; gero eta gehiago daude bideratuta gure lehenetasunezko espezializazio-arloetara; eta gero eta onespenez eta eragin handiagoa dute nazioartean.

Guk hemen harrotasun handiz aurkeztutakoa zuretzat interesgarria izatea espero dut. Euskal Herritik mundura doan proiektu honetan, Bake Kulturaren, Garapen Iraunkorraren eta Giza Eskubideen aldeko proiektu honetan gurekin jarraitu nahi baduzu, dela lankidetzan jardunez nola bertan parte hartuz edo lagunduz, badakizu... gu pozik.

UNESCO Etxea irabazi-asmorik gabeko erakundea (GKE) da, Eusko Jaurlaritzaren Erregistroan 1991n inskribatua eta 2006an Onura Publikokoa deklaraturia. UNESCO (Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea) erakundearen printzipioak, programak eta jarduerak esparruan zabaltzeko asmoz sortu zen.

Egun, elkarteak 98 bazkide ditu, eta horiek osatzen dute erakundeari zentzua eta laguntza ematen dion gizarte-oinarria. Bestetik, UNESCO Etxearen LAGUNAK daude; horiek erakundearen jardueretan lagundu eta parte hartzen dute, batzuek gehiago, beste batzuek gutxiago.

Legeari eta gure estatutuari ezarritakoaren arabera, bazkideen batzar orokorrak hautatzen du zuzendaritza-kontseilua. Egun, honako hauek dira kontseiluko kideak:

Ruper Ormaza, Lehendakaria
 Itziar Idiazabal, Lehendakariordea
 Ramón Salbidegoitia, Diruzaina
 Ñanga de Gomendiourrutia, Idazkaria
 Jon Arrieta, Miren Onaindia, Xabier Monasterio eta Paul Ortega, Bokalak

Zuzendaritza-batzordea erakundearen gobernu-organo nagusia da. Jarduera-ildo orokorrak erabakitzen ditu eta haiek betetzen direla zaintzen du.

Zuzendaritza-batzordeari bere zuzendaritza-lan estrategikoenetan eta epe luzera laguntzeko, UNESCO Etxeak goi-mailako aholku-organo bat eratu du: Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordea. 2005eko irailaren 21ean (Bakearen Nazioarteko Eguna) eratu zen eta ohorezko kide hauek ditu: José Antonio Ardanza, Federico Mayor Zaragoza, Joaquín Achúcarro, Juanita Carro, Fèlix Martí, Txomin Bereciartua eta Daniel Innerarity.

Profesionalen talde batek diseinatzen eta garatzen ditu plan estrategiko eta operatiboak. Hamahiru pertsona hauek osatzen dute taldea: Mikel Mancisidor, Olga Andueza, Helena Orella, Monika Vázquez, Belen Uranga, Rubén Iñiguez, Josu Sanz, Leire Garrastatxu, Marta Urrutxi, Estibaliz Izagirre, Ruth Fernández, Alba García eta Asier Barrenak.



UNESCO Etxeko lan talde ia osoa

Misioa, ikuspegia eta balioak

MISIOA (zertarako gauden)

UNESCO Etxeak Euskal gizartearen (gizarte zibila eta erakundeak) eta nazioarteko komunitatearen (bereziki UNESCOren eta NAZIO BATUEN sistemako gainerako erakundeak) arteko elkarreragina bultzatzen du zientziaren, hezkuntzaren, kulturaren, bakearen, garapen jasangarriaren, ingurumenaren eta giza eskubideen arloetan, iritziak eta irizpideak emanez, sormenaren, eraginaren, prestakuntzaren, berrikuntzaren eta dibulgazioaren bidez.

IKUSPEGIA (zer izan nahi dugun)


UNESCO Etxea erakunde sendoa, ospetsua eta independentea da, errekonozimendua du, eta kalitate-irizpidez jarduten du. Erakundearen bazkide eta lagunen taldea zabal eta plurala da. UNESCO Etxearen zuzendaritza-batzordea aktiboa da, eta erakundearen lantalde profesionala, berriz, goi-mailakoa, kohesioduna eta sendotua. Misioa betetzeko orduan gizartean lortu duen dimentsioa, garrantzia, proiektzioa eta baliagarritasuna ikusita, UNESCO Etxea erreferentzia dugu EAEn. UNESCO Etxeak nazioarteko maila gorenean egiten du lan bere espezializazio esparruetan eta modu eraginkorrean hartzen du parte munduan erreferentzia eta eragile diren sare eta jokalekuetan.

BALIOAK (zerk bultzatzen gaituen)


Honela dio UNESCOren Konstituzioaren hitzaurreak: «gerrak gizakien buruan sortzen direnez, gizakien buruan eraiki behar dira bakerako oinarriak». UNESCO Etxea bake justua eta duina eraikitzearen aldekoa da, pertsona oinarri hartuta, hezkuntzaren, zientziaren, kulturaren eta informazioaren bitartez. Horretarako, oinarriko askatasunak eta aniztasuna errespetatzea defendatzen du, arraza, sexua, sexu-joera, hizkuntza edo erlijioagatiko bereizketarik egin gabe. UNESCO Etxeak bere egiten ditu Nazio Batuen berariazko balioak: giza eskubideak, demokrazia, tolerantzia, justizia eta askatasuna errespetatzea eta sustatzea. UNESCO Etxearentzako balio horiek behar-beharrezkoak dira gure herrialdearen errealitatean, eta aurrera eramateko konpromisoa hartzen du.

Eguneroko lanean UNESCO Etxeak bere egiten ditu balio hauek: berrikuntza, sormena, kalitatea, efikazia eta eraginkortasuna, pertsonaren garapen integrala (bere lantaldeko jendearena, lehendabizi, jakina), herrialdearen etorkizunarekiko ardura eta inguruko eta mundu zabaleko gizartea zerbitzatzeko borondatea.

UNESCO ETXEA ORGANIGRAMA 2007




Kideak




EMAKUME GIZON

Zuzendaritza-Batzordea




EMAKUME GIZON

Ohorezko kideak



EMAKUME GIZON

Profesionalak



EMAKUME GIZON

Sareak eta aliantzak

Unescorekin eta Nazio Batuekin elkar hartuta

«... Eszenategi internazionalako eragile ez estatalek mundu mailako oinarri berria osatzen dute. NBEen erakundeak haiekin elkar hartuta jokatu behar du gero eta gehiago. NBE behartuta dago munduko gizarte zibilararekin jokatzeko ikastera. (...) Erakundeak eragile erabakigarri horiekiko harremanak sustatu behar ditu (...) NBEk gizarte zibilararekin duen harremana asko sakondu eta zabaldu da. Gizarte zibilararekin eta estatuz kanpoko beste eragile batzuekin dugun harremanak indartu egin du erakundeak. NBEen helburuak gizarte zibilararen parte-hartze betearekin kontatuz lortu ahal izango dira bakarrik (...)»
Kofi Annan, 2006ko abendua.

UNESCO Etxeak Euskal Herriaren eta nazioarteko erakunde nagusien arteko lotura sendoa ezartzen du, horretarako bi tresna garrantzitsu erabiliz: *UNESCOrekin Harreman Ofizialen Estatusa*, eta *Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren aurreko Aholkularitza Estatusa (ECOSOC)*. Horrez gain, *UNESCO Etxea Nazio Batuen Informazio Publikoaren Saileko (DIP)* kide da. Bestetik, haren Dokumentazio Zentroa *UNESCOrekin Elkartutako Liburutegi Sareko (UNAL)* kide da.

Hezkuntza, ingurumena, kultura eta giza eskubideekin lotutako UNESCOren hainbat programatan hartzen dugu parte. Modu estuan egiten dugu lan *UNESCOrekin Elkarlanerako Espainiako Batzordearekin* (Comisión Española de Cooperación con la UNESCO), Kanpo Harremanetarako eta Lankidetzarako Ministerioaren menpeko erakundeak.

Nazio Batuen Milurteko Kanpainarekin kolaboratzen dugu, Milurtekoaren Helburuak bete daitezkeen, eta *Nazio Batuen Europako Eskualde Bulegoarekin (UNRIC)* ere bai. Lan-harreman egonkorrak ditugu *Nazio Batuen Giza Eskubideentzako Ordezkarri Nagusiaren Bulegoarekin (OHCHR)*, eta *ONUSIDA*, *Nazio Batuen Biztanleria Fondearekin (UNFPA)* eta *Garapenerako Nazio Batuen Programarekin (PNUD)*.

Sarean lan egiten duen nazioarteko gizarte zibilararen partaide

Bestalde, UNESCO Etxea *UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Mundu Federazioko (FMACU)* kide da, eta *UNESCO Zentroen, Elkarteen eta Kluben Munduko Federazioaren* barruan dago. Gure aurreko zuzendaria, Paul Ortega, erakunde honen Presidente izan zen lau urtez (1999-2003).

UNESCO Etxea *Nazio Batuetako Elkarteen Munduko Federazioaren (WFUNA)* erreferentia da EAEn, 2006an *Espainiako Nazio Batuen Elkartearekin (ANUE)* sinatutako Hitzarmenari esker.

CONGOk kide gara, *Nazio Batuen aurrean Estatus Aholku-emailea duten GKE-en Konferentzia*, eta parte hartzen dugu honen urteroko batzarretan. UBUNTUren erdigune gara

Euskadin, *Gizarte Zibileko Sareen Munduko Foroa*, eta *Nazioarteko Erakundeak Sakon Berritzeko Mundu mailako Kanpainaren Euskal Komitea* zuzentzen dugu.

UNESCO Etxeak hainbat erakunderekin sinatu ditu elkarlanerako hitzarmenak: *UNESCOCat (Centre UNESCO de Catalunya)*, *LINGUAPAX Institutua*, *Foro Rural Mundial*, *Pax Romana - MIIC*, *Fundación Cultura de Paz*, eta *Asociación Española para el Desarrollo y la Aplicación del Derecho Internacional de los Derechos Humanos (AEDIDH)*.



Linguapax Institutuaren eta AMARAUNA sarearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren sinadura. 2006ko uztaila. Bilbo

Euskal Herritik maila lokalean eta globalean

UNESCO Etxea UNESCO-EHUko Katedrak sortzearen aldeko sustatzaile aktiboa izan da, eta hala, Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntzari buruzko Katedra eta Munduko Hizkuntza Ondareari buruzko UNESCO Katedrak ezarri dira Euskal Herriko Unibertsitatean.

UNESCO Etxea *Euskadiko GKEen Koordinakundearen* kide da; Ruth Fernández lankidea erakunde honen *Mobilizazio eta Kanpainen Taldean* ari da.

Giza Eskubideetan Hezitzeko eta Bakearen aldeko Elkarteen Foroaren sortzaile taldekoak gara, eta Monika Vázquez gure lan-taldeko partaidea haren lehen Zuzendaritza-Batzordeko kidea da.

Hainbat proiektutan egiten dugu lan, Immigrazioaren Euskal Behatokiarekin eta Erromako Klubeko Atal Espainiarraren Euskal Taldearekin batera.

Oso harreman estua dugu Deustuko Unibertsitateko *Pedro Arrupe Institutuarekin* eta *Euskal Herriko Unibertsitateko Nazioarteko Ikasketen Katedrarekin*. 2006an EHUko Udako Ikastaroekin kolaboratzen hasi gara.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuarekin lanean jarraitzen dugu; lankide eta kolaboratzaile gara hainbat ekimenetan.

• UNESCO Etxeko bekadunak munduan. 2006



Espezializazio arloak

HIZKUNTZAK ETA KULTURAK - AMARAUNA



UNESCO Etxea-AMARAUNaren parte-hartzea LINGUAPAX-AFRIKA Konferentzian
2006ko abendua. Jaunde (Kamerun)

AMARAUNA deitzen diogun UNESCO Etxearen Hizkuntza arloak hizkuntzen ezaguera sustatzen du eta, honekin batera, Nazioarteko Hizkuntza Ondarearen hedapena eta gizartearen gai honekiko sentsibilizazioa bilatzen du, hizkuntza gutxituena, bereziki, hauen erabilera berdintasun egoeran bultzatzeko eta beren hiztunen eskubideak sustatzeko, herrialde eta nazioarte mailako ekimenak bultzatuz.

Gure Munduko Hizkuntzen Txostena, euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz, ingelesez, eta errusieraz atera dugu (UNESCOCat-ek editatua), katalunierazko laburpen batekin batera. Euskal Herrian, Madrilen, Bruselan eta Bordelen aurkeztu dugu txostena, oihartzun onarekin.

Testuak eta CDak prestatzen ari gara *Ameriketako hizkuntza-aniztasuna*, *Mexikotik Hego-Muturreraino* gaiarekin; 2007an ikusiko dute argia, Amerikako adituen kolaborazioekin. Gero, Afrikako hizkuntzen gaineko beste ale bati ekingo diogu, dagoeneko lanean ari garen afrikar erakunde, sare eta adituen laguntzarekin, LINGUAPAX-AFRIKA sarearekin, bereziki.

Zenbait urtetako ikerketa bat garatzen ari gara Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin, Euskal Herriko biztanleek lurraldeko hizkuntza ofizialez dituzten uste eta ideiei buruz.

Hizkuntza-aniztasuna errealitate konplexua da gure lurraldean, horregatik, Immigrazioaren Euskal Behatokiarekin batera, Euskal Herriko hizkuntza-aniztasuna aztertzen hasi gara, gure herrialdean bizi diren immigrazio-hizkuntzak eta haien aurrean dauden jarrerak identifikatzeko.

GIZA ESKUBIDEAK ETA BAKE KULTURA

Abian jarri den Bakea Giza Eskubide modura aldarrikatzearen aldeko mugimenduan sustatze lanetan biziki aritu gara. Hori dela-eta, Nazio Batuetan Giza Eskubideen Kontseilu berriaren ekitaldi nagusian hainbat aldiz parte hartu dugu. Marko garrantzizko horretan nazioarteko hainbat GKErekin ekitaldi paraleloak ere antolatu ditugu.

Kritika zorrotzak izan zituen arren, Giza Eskubideen Komisioak garrantzi handia izan zuen, eta egun interes bereziarekin eta modu kritiko aktiboan jarraitzen dugu bere eraldakuntza Giza Eskubideen Kontseilu bihurtzeko.

Urte honetan Bake Kulturako gure lana indartuko dugu eta gainera Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideetan sakon sartuko gara, bereziki Kultura eta Hizkuntza Eskubideen sustapenean eta Ura Giza Eskubidearen garapenean.

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin lanean dihardugu Giza Eskubide alorrean lan egiten duten nazioarteko adituekin harremanak zabaltzeko, bereziki Giza Eskubide eta Bake Hezkuntza gaietan gure herrialdearen gaitasuna indartzeko helburuarekin.



Mahai-ingurua: Consejo de Derechos Humanos: génesis y perspectivas
Eskumatik-Ezkerrera: Angels Mataró, Fernando Fernández-Arias, Carlos Villán Durán eta Mikel Mancisidor. 2006ko otsaila. Madril

IRAUNKORTASUNA ETA INGURUMENA

Iraunkortasun eta Ingurumen arloaren bidez, UNESCO Etxeak parte hartzen du mundu mailako erronka nagusi batzuetan, garapen iraunkorraren alorrean, tokiko eta mundu zabaleko ahaleginak batuz, nazioarteko kanpainak eta programak herrialdera ekarriz, Euskal Herritik erronka horietako batzuei erantzuteko bidea eginez. UNESCO Etxean bi ezaguera eta ekimen arlotan dihardugu espezializatzen: ura eta ingurumen-hezkuntza.

Eusko Jaurlaritzako Ur-Zuzendaritzarekin batera parte hartu dugu UNESCOk koordinatzen duen Baliabide Hidrikoen Nazio Batuen Munduko Txostena egiten, eta euskal kasua txosten horretan sartzea lortu dugu. Lan horren bitartez eginiko aliantzek datozen erronkei aurre egiteko moduan jarri gaituzte: Errekurtso Hidrikoei buruzko III. Munduko Txostena, eta 'Ura eta Iraunkortasuna' Expo Zaragoza 2008. Aldi berean, Milurtekoko Kanpainaren helburuak lortzeko lanean ari gara Edateko ura eta saneamenduari dagokionean, beti ere, Ura Giza Eskubide arloan kokatzen dugularik. Gainera, 'Ura, bizitza-iturri' Nazio Batuetako Hamarkadan parte hartu dugu.

UNESCO Etxeak Urdaibaiko Biosfera Erreserbarekin duen harremana urtez urte zehazten da Garapen Iraunkorrari buruzko Urdaibaiko Jardunaldietan. 2006 honetan 70 parte-hartzaile baino gehiagok azaldu dute ingurumen-heziketarekiko konpromisoa, Bermeon egin zen Garapen Iraunkorrari buruzko Urdaibaiko XII. Jardunaldietan; harekin batera, gunebabestuen Ingurumen Heziketarako II. Biltzarra ere egin zen. Aldi berean, urriaren 23tik 29ra bitartean, UNESCOren biosfera-erreserba sareen arteko gazte-trukaketa egin zen, Euskal Herritik, Kataluniatik, Madriletik eta Kanarietatik etorritako 10 gaztek hartu zuten parte. Etorkizunean areagotu egingo dugu Urdaibaiko Erreserbaren aldeko gure apustua, Eusko Jaurlaritzako Bioaniztasun- eta Ingurumen-heziketa Zuzendaritzarekin batera, orain arte baino ekarpen handiagoa egingo dugularik internazionalizazio eta trukaketa alorretan.

Informazio, sentsibilizazio eta difusio arloak

HEZKUNTZA

UNESCO Etxearen hezkuntza alorraren eginkizuna da Nazio Batuen eta UNESCOren hezkuntza-proiektuak eta –programak hedatzea Euskal Herriko hezkuntza-komunitatean eta horri laguntzea aniztasun kulturalak sortzen dituen erronketan.

2006an bost euskal ikastetxeren parte-hartzea koordinatu dugu UNESCOren Elkartutako Nazioarteko Eskola-Sarean, eta horietako biren partaidetza monumentuen nazioarteko fotografia-esperientzian. Bi euskal ikaslek sariak jaso zituzten bere inguruko kultura-ondareari ateratako argazkiekin, Estrasburgon egin zen ikasleen nazioarteko topaketan parte hartu zuten, eta Europako Kontseiluan harrera egin zieten.

Gida bat egokitu dugu euskarara: *ABC: giza eskubideak erakusten*, Giza Eskubideen aldeko ONUko Ordezkaritza Nagusiak egin, laster argitaratu eta euskal ikastetxeetan zabalduko dena, Eusko Jaurlaritzako Elkarlanerako Zuzendaritzaren laguntzarekin.

Euskadiko Hezkuntza Kooperatiben Federazioarekin kolaboratu dugu, irakasleak kulturen arteko heziketan sentiberatzeko programa baten bitartez.



Biosfera Erreserben-sareko Gazteen XI. Elkartrukea 2006ko urria. Bisita arkeologikoa. Urdaibai



Monumentuen nazioarteko argazki-lehiaketa Artxandape Ikastola eta Urrebu-Zumarraga Ikastola. 2006ko abendua. Estrasburgo



Lankideentzat zuzeneko formazio ikastaroa
2006ko uztailea

KOOPERA PROGRAMA: Nazio Batuak eta Nazioarteko Elkarlana

UNESCO Etxeak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskadiko Kutxaren laguntzarekin aurrera daraman KOOPERA Programak bere eginkizuna sendotu eta finkatu egin du, publikora zabalduko Informazio eta Prestakuntza Zentro eta Nazio Batuen Sistemaren eta Nazioarteko Elkarlanean espezializatutako Zentro gisa.


Aurreko urteetan bezala, Prestakuntzak eta beka-programek bereganatu dute gure arreta. Nazio Batuen sistemari eta UNESCO Etxearen proiektuei buruzko 1.500 kontsulta erantzun dira, horietako 400 posta elektronikoaren bidez. 176 ordu eskaini zaie Nazio Batuak eta Nazioarteko

Lankidetzari gai zuten prestakuntzei, eta 90 ikasle izan dituzte denera.

2006. urtean 10 gaztek beka bana jaso dute (Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak diruz lagundutako programa baten barruan) UNESCOren bulegoetan lan egiteko Asia, Afrika eta Latinoamerikako 9 herrialdeetan. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzako lankidetzari programa baten bitartez, beste gazte bat UNESCOren

Gazteria Zuzendaritzako taldean izan da Parisen.

Kooperatza Zentroa. Kontsultatutako arloak 2006



KOOPERA Zentroa plataformatzat erabili da zenbait argitalpen jendearen aurrean aurkezteko, horien artean azpimarratzekoa PNUDen Giza Garapenari buruzko Txostena 2006.

Esan beharra dago KOOPERAKO taldea hazi egin dela Ruth Fernándezen lankidetzarekin.

DOKUMENTAZIO ZENTROA

UNESCO Etxearen Dokumentazio Zentroak Nazio Batuen Sistemaren, eta batez ere UNESCOren jardunaren irizpideak, dokumentazioa, programak eta ildoak eskura jartzen ditu, 2003az geroztik, Gainera, UNESCOren Liburutegi Elkartuen Sarearen (UNAL) kide da.

Honela dago osatuta dokumentazio-fondoa: 2.900 titulu baino gehiagoko biblioteka, 80 aldizkari, mundu mailako konferentzia edo gailur desberdinei buruzko txosten tematikoak, ikus-entzunezkoak eta Nazio Batuen Sistemaren dokumentazio ofiziala. Eskaintzen diren zerbitzuak: mailegua, telefono edo posta elektroniko bidezko dokumentazio-kontsultak gelan, datu-base bibliografikoaren on-line kontsulta, UNESCOko datu-basearen kontsulta eta aurkibideen eta berrien buletinak.

716 kontsulta erantzun eta 329 titulu atera ondoren, garbi geratu da dokumentazio-zentroak 2006an ere erreferentzia izaten jarraitzen duela EAEn, Nazio Batuetako erakunde eta programen lan-esparruen gaineko informazioa lortzeko orduan.



Aldizkari berriak

WEB ORRIA

2006an gure web orria hobetzen saiatu gara eta haren bidez eskaintzen ditugun informazio eta zerbitzuak ugartu egin ditugu. Lan honen ondorioz, bisita kopurua %90 hazi da aurreko urtearekiko, 296.563 bisita hartu dira denera, batez beste 812 egunean, eta 1.484.038 orrialde ikusi dira.


www.unescoeh.org

ARGITALPENAK

UNESCO Etxeak interesdunen esku jartzen ditu Ediciones UNESCOren argitalpenak, banatzaile ofiziala den aldetik. Halaber, UNESCO Etxeak badu bere argitalpen-katalogoa, eta argitalpen horietako asko doan eskura daitezke formatu elektronikoa, gure web orriaren bidez.

Hauek izan dira 2006eko argitalpenak:

Sarrerak 2004-2006



PNUD. PNUD. Giza garapenari buruzko Txostena 2006: laburpena
Euskara
Interneten eskura daiteke



Martí eta beste. Hizkuntzen Mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena.
Errusieraz
(Kalmyk State University-k argitaratua)



WWAP. Ura, guztion ardura. Nazio Batuen Uraren Garapenari buruzko Munduko II. txostena (laburpena)
Gaztelaniaz eta Euskaraz
Interneten eskura daiteke



Zenbait egile. Garapen Iraunkorrari buruzko Urdaibaiko XI. Jardunaldiak
Gaztelaniaz eta Euskaraz



UNFPA. Munduko biztanleriaren egoera 2005: Berdintasuna helburu. Genero ekitatea, ugalketa osasuna eta Milurtekoko Garapen Helburuak
Euskaraz
Interneten eskura daiteke



Martí eta beste. Un monde de paroles, paroles du monde. Étude sur les langues du monde
Frantsesez
(L'Harmattan editorialak argitaratua)
Eskuragarri: www.editions-harmattan.fr (31 €)



Martí eta beste. Palabras y mundos. Informe sobre las lenguas del mundo
(Icaria editorialak argitaratua)
Eskuragarri: www.icariaeditorial.com
eta liburu dendetan (23 €)



VÁZQUEZ, M (Koord.). Ozeanoei buruz hitz egin dezagun
Gaztelania-Euskara
Interneten eskuragarri



Kepa Sodupe, UPV-EHUko Katedraduna eta Nazioarteko Ikasketen Katedrako zuzendaria, Juan Ignacio Pérez, UPV-EHUko Errektorea, Juan José Ibarretxe, Lehendakaria; Francesc Granell, Bartzelonako Unibertsitate Zentraleko Katedraduna; Mikel Mancisidor, UNESCO Etxeko Zuzendaria



Bizkaia Zubia Gizateriaren Ondare izendatua Vilniusen (Lituania) 2006ko uztaila

Gertaera nabarmenak eta aurkezpen publikoak

120 lagunek baino gehiagok parte hartu zuten UNESCO Etxeak eta EHU-UPVko Nazioarteko Ikasketen Katedrak **antolatutako Nazio Batuen Erreformari buruzko Jardunaldietan**, maiatzaren 3an eta 4an, Bilbon. Seguritatea, bakea, pobrezia, garapena eta gizarte zibilaren parte-hartzearen ikuspegitik aztertu genuen erreforma-prozesua. Txostengileen artean Enrique V. Iglesias Jauna nabarmendu daiteke, Idazkari Nagusi Iberoamerikarra, eta Silvia Escobar Andrea, Giza Eskubide gaitako Enbaxadorea misio berezian, eta Josep Xercavins Jauna, UBUNTU foroko Koordinatzailea.

Ekainaren 26an Genevako Nazio Batuetako Palais des Nationsen **La paz como Derecho Humano** liburua aurkeztu genuen Giza Eskubideen Kontseiluko lehen batzarraldian.

Ekitaldi horren buru izan ziren Emilio Ginés, Europako Kontseiluko Torturaren Prebentziorako Europako Batzordeko kidea, Carlos Villán Duran, AEDIDHko presidentea eta gure zuzendaria, Mikel Mancisidor. MPDI GKEaren TIEMPO DE PAZ aldizkariak editatutako argitalpen honetan, UNESCO Etxeak eta AEDIDH-k 2005eko abenduan Gernikan antolatutako 'Bakerako giza eskubideei buruzko adierazpen unibertsalaren egitasmoa'-ri buruzko adituen mintegian aurkeztutako hitzaldiak biltzen dira.

UNESCO Etxeak errelatore lanak egin zituen Oñatiko Nazioarteko Soziologia Juridikoko Institutuak antolatutako **Soziologia juridikoa bake prozesuetan giza eskubideen esanetan: Kolonia, Ipar Irlanda, Euskadi, beste prozesu batzuk udako ikastaroan**. Bertan, bake prozesuetan giza eskubideak babesteko gai desberdinetan nazioarteko adituak bildu ziren.

Uztailean, Vilniusen (Lituania) bildu zen UNESCOren Munduko Ondarearen Batzordeak, **Gizateriaren Ondare** deklaratu zuen Bizkaiko Zubia. Hau da Munduko Ondarearen zerrendan sartu den Euskal Herriko lehen monumentua, eta estatuko lehena industria-ondarearen saillean. 2003tik UNESCO Etxeak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzarekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Zubiaren Enpresa Kudeatzailearekin batera, parte hartu du UNESCOren Munduko Ondarearen Zentroan aurkeztu beharreko hautagaitza landu, aurkeztu eta defendatzeko osatu zen lan-taldean.

UNESCO Etxeak, Donostiako Udalaren lankidetzarekin, **Hiria, Giza Eskubideak eta Bakea izeneko ikastaroaren** antolaketan hartu zuen parte, Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen barruan. Hitzaldiak eman zituzten txostengileen artean zeuden Federico Mayor Zaragoza, Odon Elorza, eta Nantes, Nüremberg, Gernika eta Bradford hirietako ordezkariak.

Mikel Mancisidor eta Rebeca Carrionek irailaren 6 eta 8 bitartean New Yorken ospatutako **Nazio Batuetako Informazio Publikoko Departamentuarekin harreman ofizialak dituzten GKEen 59**. Biltzar orokorrean parte hartu zuten. Konferentzia hori Nazio Batuetan GKEekin egiten den garrantzizkoena da, eta, bertan, 90 herrialdetako 2500 ordezkariak parte hartu zuten. UNESCO Etxearen izenean Milurtekoko Garapen Helburuei buruzko eta Giza Eskubideei buruzko ekitaldietan parte hartu zuten.



Munduko Hizkuntzei buruzko Txostenaren aurkezpena. 2006ko urria. Brusela

Irailaren 28an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu sailarekin, **Uraren kudeaketa onari buruzko Nazioarteko mintegia** antolatu genuen Gasteizen. Bertan Carlos Fernández- Jáuregui izan zen, Nazio Batuen Urari buruzko Munduko Ebaluazio Programaren (WWAP) koordinatzailea.

2005ean ingelesez eta euskaraz argitaratu ondoren, **Hizkuntzen Mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena**, gaztelaniazko eta frantsesezko edizioak argitaratu ditugu 2006an. Gaztelaniazko edizioa, Icarriak argitaratua, Madrileko Euskal Etxean aurkeztu zen Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikako Sailburuordearen parte hartzearekin. Ondoren, Madrileko Unibertsitate Autonomoko irakaslea eta Txostenaren kolaboratzailea den Juan Carlos Morenok, *Munduko hizkuntza-aniztasuna* hitzaldia eman zuen. Frantseseko bertsioa, *Un monde de paroles, paroles du monde. Étude sur les langues du monde*, L'Harmattan editorialak argitaratua, Bruselako Eusko Jaurlaritzaren egoitzan aurkeztu zen. Oraingo honetan, Deustuko Unibertsitateko irakasle den Esti Amorrortu Andreak eta Kataluniako UNESCOcateko eta LINGUAPAX Institutuko Ohorezko Presidentea den Felix Martí Jaunak eman zuten hitzaldia.

Mikel Mancisidorrek **Nazioarteko Erakundearen Erreformatarako Nazioarteko Konferentzian** parte hartu zuen, azaroaren 20 eta 21ean Genevako OIT-n ospatua. Bertan, Bakea Giza Eskubideari Buruzko Adierazpena aurkeztu zen Federico Mayor Zaragoza, UNESCOko Zuzendari Orokor ohia eta UNESCO Etxeko ohorezko bazkidearekin eta Carlos Villán Durán, AEDIDHko presidentearekin.

2006an, UNESCO Etxeak Nazio Batuen hiru txosten argitaratu eta aurkeztu ditu euskaraz:

Martxoaren 22an, Mexiko D.F.n egin zen Munduko IV. Uraren Foroaren markoan, UNESCOren Zuzendari Nagusiak **Nazio Batuen 2. Txostena Munduko baliabide Hidrikoen Garapenaz: ura, partekatutako ardura, lana aurkeztu zuen**. UNESCO Etxeak koordinatu zuen txosten honen gaztelaniazko eta euskarazko edizio ofiziala. Irailaren 29an, Bilboko Itsas Museoa aurkeztu genuen txosten inportante hau.

Uztailaren 20an, **Munduko biztanleriaren egoera 2005 Txostena aurkeztu genuen. Berdintasuna helburu. Genero ekitatea, ugalketa osasuna eta Milurtekoko Garapen Helburuak**. UNESCO Etxeak, EMAKUNDEko Zuzendariarekin, Izaskun Moyua andrearekin, euskarazko edizioa koordinatu eta Bilboko Udaleko Emakume eta Garapen Lankidetzako zinegotziari, Carmen Garcia andreari, aurkeztu zioten. Bertan izan zen UNFPAko Talde Teknikoko Zuzendaria den Rogelio Fernández-Castilla jauna ere.

Giza garapenak Ura behar du nahitaez, baina Ur gabezia nazio eta nazioarteko politiken baitan dago gero eta gehiago, eta ez hainbeste baliabide horren eskuragarritasunean. Hau da txostenaren ondorio nagusia, **Giza garapenaren Txostena 2006. Gabezia baino haratago: boterea, pobrezia eta Mundu mailako uraren krisia**, zeinen euskarazko bertsioa, Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzak eta Garapenerako Zuzendaritzak editatua, Bilbon aurkeztu zen azaroaren 27an, Ricardo Fuentes Jauna bertan zelarik, txostena landu duen taldeko kidea eta PNUDEko espezialista estatistika arloan.



Uraren Garapenari buruzko Munduko II. Txostenaren aurkezpena Koichiro Matsuura, UNESCOren Zuzendari Nagusia euskarazko edizioarekin. 2006ko martxo. Mexiko D.F



2005eko Munduko Biztanleriaren Txostena Euskarazko edizioa 2006ko uztaila. Nazio Batuetako Liburutegia, Geneva




2006ko Giza Garapenari buruzko Txostenaren aurkezpena. 2006ko azaroa. Bilbo

Bazkide, erakunde eta instituzioei esker UNESCO Etxeak milioi bat euro baino gehiago kudeatu ditu 2006. urtean. Ondorengo txosten ekonomikoaren bitartez jardueraren emaitza zehatz-mehatz aurkeztu nahi dizuegu.

Sarrera pribatuen eta publikoen jatorria

2006ko Sarrerak, Guztira	1.036.872 €
Ekarpen pribatuak	153.093 €
Bazkideak	6.944 €
Entitate pribatuak	146.149 €
Ekarpen publikoak	883.779 €
Eusko Jaurlaritza	732.477 €
Bizkaiko Foru Aldundia	60.000 €
Udalak	64.759 €
M A E	2.000 €
Beste sarrera batzuk	24.542 €



Gastua Programaz Programa

2006ko Gastuak, Guztira	996.452 €
Hezkuntzarako eta gazteriarantzako proiektuak	62.592 €
Lankidetzarako proiektuak	182.933 €
UNESCO beak	186.158 €
Giza eskubideetarako proiektuak	21.766 €
Ingurumeneko proiektuak	131.180 €
AMARAUNA proiektua	140.090 €
Dokumentazio-zentroa	1.002 €
KOOPERA	59.427 €
Nazioarteko harremanak	110.449 €
Kudeaketa orokorra	100.852 €

2006KO EGOERA-BALANTZEA


Aktiboa	2006	2005
B) Ibilgetua	14.983,07 €	16.672,80 €
D) Aktibo Zirkulatzailea	939.503,86 €	648.069,71 €
Aktiboa Guztira	954.486,93 €	664.742,51 €

Pasiboa	2006	2005
A) Funtz Propioak	112.221,996 €	71.801,76 €
E) Epe motzeko hartzekodunak	842.264,94 €	592.940,75 €
Pasiboa Guztira	954.486,93 €	664.742,51 €

Auditoriaren Txostena



Sarreraren bilakaera 2000-2006



INTERPRETATIO-OHARRAK

1.- 2004an milioi bat eurotako aurrekontua izatera heldu ginen. Azken hiru urteetan tamaina hori egonkortu nahi izan dugu, gure ekimen eta zerbitzuen kalitateari eta identitateari buruzko hausnarketa egiten genuen bitartean. 2004an gure MISIOA definitu genuen eta orduz geroztik lehenetsunak finkatuz balio erantsia dutenetan zentratu gara, gehiago eta hobeto emateko gai garenetan, soilik gehiago eman eta ikasi nahi dugunetan. Horren ondorioz, zenbait arlo alboratu behar izan dugu eta murriztu beste batzuk, lehenetsun horiei hobeto heltzeko.

2.- 2005ean urte anitzeko programak indartu behar genituela erabaki genuen. Horren arabera, 2006an plangintzarako eta errektursoak lortzeko buruturiko lan eskerdaren emaitza 2207ko eta ondorengo aurrekontuetan ikusiko dira.

Bi lan-lido horiek (lehenetsuzko arloak indartzea eta urte anitzeko programak) 2006an egonkortu dira. Beraz, 2007tik aurrera hazkundea indartsuan eta egonkorrean pentsatzeko moduan jartzen gara. Eta garrantzikoagoa dena, %100ean MISIOAk agintzen digun zerbitzuan, euskal eta nazio arteko gizartearen zerbitzuan.

Gure eskerrik beroenak:

Etengabe babesten gaituzten bazkideei.

Ohorezko Bazkideen Aholku Batzordeari (Federico Mayor Zaragoza, Jose Antonio Ardanza, Juanita Carro, Fèlix Martí, Txomin Bereziartua, Joaquin Achucarro eta Daniel Innerarity).

Amaraunako talde teknikoko kideei, irmotasun, zorroztasun eta gogo handia erakutsi dutelako. (Andoni Barreña, Itziar Idiazabal, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega).

Hezkuntza alorreko aholkularitza taldeko kideei, beren lankidetzaren adoretuagatik (Neli Zaitegi, Nieves Fernández, Alejandro Campo, Luis Otano eta Begoña Ocio).

Beste proiektu batzuei ekiteko UNESCO Etxea utzi duten gure lagun Rebeca Carrión, Josune Rojas eta Jasone Unzueta. Arrakasta opa diegu maila pertsonalean zein profesionalean.

Finantziazioan laguntzen gaituzten erakundeei: Eusko Jaurlaritza:

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia.
Kultura Saila.
Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila.
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila.
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Bizkaiko Foru Aldundia.
Bilboko Udala.
Donostiako Udala.
Basauriko Udala.
Bermeoko Udala.
Gernika-Lumoko Udala.

UNESCOren MaB Programaren espainiar Batzordea-Ingurumen Ministerioa.
Parke Nazionalak.

Kanpo Harremanetarako eta Nazioarteko Lankidetzarako Ministerioaren Giza Eskubideen Zuzendaritza.



EL CORREO

ULMA

IRIZAR

Auzo Lagun

VIAJES IBERIA

Gipuzkoa

GESTION 2-17...

Eskerrik beroenak honako entitateei:

Kataluniako UNESCOCat-i, bere lankidetzagatik (Agustí Colomines, Marie-Amèlie Ponce, Josep Cru, Mónica Sabata, Josep Antón, Onno Serro).

Miren Onaindiari eta Garapen Iraunkorra eta Ingurumen hezkuntzari buruzko EHuko UNESCO katedraren baitan Urdaibaiko Erreserbako markoan ari den taldeari.

Itziar Idiazabali, Munduko Hizkuntza ondareari buruzko EHuko UNESCO katedrako

koordinatzaileari.
Kepa Soduperi, EHuko Nazioarteko Ikasketen Katedrako zuzendariari.

Eduardo J. Ruizi, Felipe Gómezi eta Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko talde guztiari.

Xabier Aranari, Kiko Álvarez eta Urdaibai Erreserbako Patronatuko talde guztiari.

Joxerramon Bengoetxeari eta Malen Gordoari, Oñatiko Soziologia Juridikoko Nazioarteko Institutukoak.

José Miguel Martínez Urquijori, erakundearen zuzendaritzari emaniko laguntzagatik.

UNESCOrekin lankidetzarako Espainiako Batzordeari, bere Presidente Luis I. Ramallori, Idazkari Orokor izandako Pablo Barrios eta Jose Antonio de Mesa oraingoari, eta Consuelo Vázquez.

Eusko Jaurlaritzaren Bruselako Ordezkaritzari eta haren zuzendari Ibon Mendibelzuari.

Eusko Jaurlaritzaren Mexikoko Ordezkaritzari eta haren zuzendari Iñaki Ruizi.

Sodupeko Ganbara Argazki Taldeari.

Rogelio Fernandez-Castilla Jaunari, Nazio Batuetako Biztanleria Fondoko Talde Teknikoko Zuzendariari (UNFPA).

Carlos Fernández-Jauregi Jaunari, Nazio Batuen Baliabide Hidrikoen Ebaluaziorako Mundu Programako (WWAP) Koordinatzaile-ordeari. Ricardo Fuentes Jaunari, talde txostengileko

estatistika alorreko kideari Garapenerako Nazio Batuen Programan (PNUD)

Eveline Herfkens Andreari, Nazio Batuen Erakundeko Milurtekoko Garapen Helburuak kanpainaren munduko koordinatzaileari, eta Fernando Casado, Kanpaina horretarako Espainiako koordinatzaileari.

Silvia Escobar Andereari, Giza Eskubide gaietako Enbaxadoreari misio berezian.

Josep Xercavins Jaunari. UPCn Tecnologia eta Garapen Iraunkorreko UNESCO Katedrako Irakasle Koordinatzaileari. UBUNTU Foroko Koordinatzaileari.

Carlos Jiménez Renjifo Jaunari. Nazio Batuen Europa Mendebalerako Informazio Eskualde-zentroko ofizialari Espainia eta Andorrrarako (RUSIC).

UNESCO Boluntarioak 2006 programako parte-hartzaile beka-duneei beren lan bikainagatik:

Laura Berdejo, Javier Córdoba, Goretti Dañobeitia, Nora Etxaniz, Beatriz Grande, Edna Jiménez, Fernando Pereda, Enrique Pinilla, Ana Tellería, Irantzu Zubiaur, eta UNESCOren gazte eta Giza Eskubideen alorreko Olatz Ariaz eta Natalia Uriberi.

Eta lan-arlo ezberdinetan bere laguntza eskaini diguten guztiak.